



Hodeien adorea

Yoseba Peña

Pozoi gehiago Euskal Herriarentzat. Horra zer iruditu zaidan liburua. Nire gomendioa: irakur ezazue (pozoiu zaitzte). Hori bai, liburuaz erabateko gozamina hartzeko, ez ahaztu Stalinen argazkia ohe azpitik ateratzea (badakizue, agure irribarretsu eta onbera haren argazkia, gizateriaren alde hainbat eta hainbat gauza *txoragarri* egin zituenarena...). Ez-anaitasun idiliko batean bizi diren euskaldunentzat oso irakurketa egokia, txibatoz eta salatariz inguratuta bizi direla uste duten paranoikoentzat eta, batez ere, hodei batean borrokan tinko iraun nahi duten haientzat bereziki gomendagarria. Dena den, ez pentsa kexu naizenik, liburua irakurri dut eta.

Gauza barregarriak (edo harrigarriak) ere badaude. Esaterako, argumentuari ez zaio falta ezta “itzultzaile traidore” baten presentzia ere. Nola ez! Torturaztaileek Txef galdekatzen duten bitartean, torturaztaileentzat lan egiten duen “itzultzaile” bat “interpretari-lanetan” ari da, noski, non eta Madrileko kasernan! Ja, ja, Barne-Ministerioak euskaldun atxiloen hizkuntza-eskubideak ez urratzeko politikari jarraiki eskainitako zerbitzua izango da hori, ezta? XII. mendean girotutako nobela historiko batean hegazkinak aipatzea bezalatsu, hi! Noski, paranoiekin segitzekotan, ere pentsa genezake liburuaren egileak CSIDerako edo Guardia Zibilerako lan egiten duela, infiltratu bat dela, eta beraren xedea dela euskaldunen artean ezinikusiak, mesfidantzak eta susmo beltzak ereitea. Zeren pozoia zabaltzen hasita...

Galdera bat: Zergatik “Hodeien adorea” eta ez “Hodeiren adorea”? “Hodei” liburuko pertsonaia baten izena da, eta deklinatzean, “r” hartu behar luke, ezta...? Galdera egiten dut... beharbada badago nik ez dakidan zerbait, edo liburuan oharkabean igaro zaidan zerbait (liburuaren izenburua justifikatuko lukeena); edo akaso egileak bakarrik ulertzen duen hitz-joko bat ote da...? Ez dakit, deigarria egin zait, besterik gabe¹.

Neurri batean (soilik), Yoseba Peñak Luis Haranburu Altuna ekarri dit gogora: beste manipulaztaile handi bat berau. Irakurri al duzue Altunaren “Cándido” nobela? Hor ere pertsonaiak agertzen dira karikatura bihurtuta, ideologia (niretzat arrotz eta etsai) baten arabera taxutuak eta hiper-manipulatuak, sinesgarritasunik ez duten filmetan agertzen diren aktoreen antzera. Eta hori bera gertatzen da “Hodeien adorea” liburuan ere, eta aurrera egin ahala, are nabarmenagoa egiten da. Pertsonaiei estereotipoen modura pentsarazten zaie. Badirudi txotxongiloak direla, txotxongilo erraz eta zakarrak, egile orojakileak hiper-erabiliak. Bestalde, kontatzailearen ahotsak azkenerako nahiko nahasita agertzen dira: hildako trafikaztailearen ahotsa, Jonena (hau ere hilda ordurako) eta egilearena berarena; eta gutxi balitz, baita Hodeirena ere, azkeneko orrietan.

¹ Baliteke horren arrazoia liburuko azken atalean egotea, Hodeik bere buruarekin duen hitz aspertu luzea osorik irakurtzeko pazientziarik ez bainuen izan.

Zeinen politizatuta gauden Euskal Herrian...Hau eldarnio batean bizitzea da...–
pentsamendua etorri zitzaidan halako batean, liburua irakurtzen ari nintzela.

Liburua “-ren zerbitzuan” dago. Eta hori ez zait gustatu. Alderdiko Argitalpenetarako Kultur Ataleko Komisario jaunari/andreari gustatuko zitzaion. Baina niri ez. Ni ez naiz Alderdikoa. Ni neure kasa nabil.

Egileak pertsonaiei buruz egiten dituen iruzkin asko eta asko oso txukunak dira. Ironia, sarkasmoa, begirada azidoa... Askotan, adimentsuak eta jostagarriak izaten dira. Baina ahaztu gabe gidoia xelebreegia, sinestezinegia dela... Batzuetan, Almodovarren gidoi bat dirudi baina “gizarte-gogoeta mikatzez” zipriztindua, nahiz eta egileak alde zuzenetik gogoeta horiek salduta eduki, label-etiketa jakin baten mesederako. Grina txikiak sorrarazten ditu hala ere, eta hori ez dago gaizki.

“Hodeien adorea” liburuaren truke 18 euro ordaindu nituela uste dut, eta ez zait damu. Ez nau hotzik utzi. Eta hori da liburu batez espero dezakegun gauzarik onenetako bat. Behin baino gehiagotan aipatu izan dut zeinen gogokoa dudan liburuekin horrelako dialektiketan sartzea. Ia-ia pugil edo boxeolari baten gisa sentitzen naiz: liburua da koadrilateroa, eta egilea eta ni (irakurlea) hortxe, ringaren erdian, egurra elkarri ematen eta egurra hartzen, etengabe, errukirik gabe.

Yoseba Peña: “kaña” ematen dizutenei buruz pentsa ezazu nahi duzuna; baina lausengariekin, zuretzat lausengu-hitzak besterik ez dauzkatenekin, txakur horiekin, ibil zaitez erne.

Finean, ez al da galeriara begira idatzitako nobela bat? “Galeriara begira” edo ghettoara begira. Bai, “Ni ghetto batean bizi naiz. Eta badakit ghetto jendeak nola pentsatzen duen. Beraz, ghetto jendearen onarpena irabazteko, ghetto jendeak entzun nahi duena esango dut eta horrela mundu guztia oso zoriontsua izango da ghettoaren barruan. Baita ni ere”. Egia esateko, nik horrela ikusten dut liburu hau. Baina, bueno, norberaren arazoa da pentsamendu kolektibo baten arabera ibiltzea. Nik, aukeran, nahiago pentsamendu indibiduala. Sutara eramango nau, badakit, baina...

Eta liburuan “justizia” egiteaz arduratzen dena autista bat izateak niretzat esangura sinboliko handia du; nik, behintzat, horrelaxe ikusten baititut euskaldun batzuk: autista peto-petoak eginak. Egoera eta izaera autista horretatik abiatuta, zenbat gauza ez ote diren ulertzen! Bestalde, liburua irakurtzen ari nintzela, une jakin batean edo bestean, barne-ahots bat entzun nuen neure baitan xuxurlaka: *Inkisidore batzuk baino ez zarete. Inkisidore anker, burubero, errukigabe eta histeriko batzuk. Israelen biziko bazinete, beltzez jantzita ibiliko zinatekete, buruan txano irrigarri bat jantzita. Horra zer pentsatzen dudan zuetaz. Traidoreak baino ez dituzue ikusten zeuen inguruan, hamarretatik zortzik bizkarra eman baitizue aspaldian, zuen doktrinamendu itsu eta hertsiarekin nazkatuta. Azkenean, ia-ia sekta bilakatu zarete. Botere handiagoa izango bazenute, sekulako sarraskia antolatuko zenukete: jipoiak, lintxamenduak, difamazioak, gezur zikinak eta gezur zuriak... den-denaz baliatzeko gauza zarete. Zuentzat den-dena zilegi delako; inkisidore batzuk zaretelako; eta autista ulertezin eta haluzinatu batzuk zaretelako. Audientzia Nazionalak adinako higuina eragiten didazue.*

Bukatzeko, jar gaitezen une batez nobelako Jonen kasuan, eta galde egin diezaigun geure buruari nola jokatu lukeen gutako bakoitzak, horrelako egoera batean suertatuz

gero. Eta nik, behintzat, oso garbi daukat: Jonen kasuan banengo, nik ez nuke sekula neure anaia salduko. Saiatuko nintzateke, hori bai, neskato pijo-zoragarriarekin ezkontzen (edo behintzat oheratzen) eta neure anaia-nazia Gabonetako afari-meriendetan bakarrik ikusten. Eta ziur aski, ezta horrelakoetan ere. Harekin hitz egingo nuke, dena nekiela esango nioke eta berataz pentsatzen dudan guztia botako nioke, eta hortik aurrera haren eta bion arteko harreman oro etenda utziko nuke. Baina ez, ez nuke neure anaia bera salatuko. Utziko nioke bere labirinto zurian eta bere infernu partikularrean itotzen, bera bakarrik, nire laguntzarik gabe, gainerako autisten “maitasunaz” inguraturik eta sostengaturik, besteei kendu zien bukaera zoriontsuan (familia bat, txakur bat eta auto bat) zimeldu eta ezabatu arte.

Gauza bat: eta Jonen anaia Txef izan beharrean, ostikoka hildako drogazale trafikatzaila izan balitz...? eta drogazalea Preziatu familiako semea izan balitz...? eta haren anaia Hodei izan balitz...? eta Hodeik Txef hil izan balu...? orduan, kasu horretan, nola “despatxatuko” zenukeen hori, Yoseba Peña? “*Zeren, akabatu ez bazintuzte, borrero bat –edo etxekalte bat– IZANGO ZINEN*” batez, akaso...?